




BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 224. alea - 2017ko abendua

**Aurkeztu da Euskaraldia,
11 egun euskaraz
aritzeko erronka**





URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095








**MINTZA
LAGUNA**




HARTU,
EMAN,
ERAGIN.

EMAN IZENA!
www.mintzalaguna.eus

Bi talde daude martxan.
Saioen ordutegia:
-asteartean, 17:30ean
-asteazkenetan, 16:15ean

INFORMAZIOA:
Zuhatza Euskara Elkarte (Ifar kalea, 12 behea). 943 19 13 83

Sustatzaileak:     

Babesleak:   

AURKIBIDEA

07

ELKARRIZKETA

Eider Duñabeitia gaztea, Hazilan egitasmoan murgilduta



08

ALBISTEAK

Ekimenak Azaroaren 25aren harira; Itziarko Auzo Udala (aurrekontua, batzarrak)



09

ABENDUAK 3

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekimenen erreposoa



13

ANIMADEBA

Abenduaren 26an abiatuko da Debako X. Animazio Zinemaldia



14

B. GAZTEA

Irakasleen greba, Andrea Aldalur kirolariari egindako elkarrizketa, inkesta...



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Deba Udal



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietia, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa:** 943 19 13 83


Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

Inprimategia: Euskalinpri **Tirada:** 1.400 ale

Lege gordailua: SS-246-2009 **ISSN** 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

Gabonak ospa ditzagun, nahigabeen ere

Nahigabeen ere ospatu ohi ditugu Jainko gizon egina etorrera edo Jesusen jaiotza. Eta elkaturik ospatu nahi ditugu. Zergatik? Erantzun gisa, zilegi bekit Avilako Teresaren hitz hauek nire egitea: "Gaitz handia da arima bat hainbeste arriskuren aurrean bakarrik egotea" (*). Zartako ederra individualismoari!

Txikitan behin baino sarriago egiten nion galdera hau neure buruari: "Zer nintzen ni jaio aurretik?". Eta orain, nire bizitzaren azkeneko etapan, galdera hau datorkit burura: "Zergatik, zertarako galdera hura neure buruari txikitan?".

Jesusen jaiotzaren 2017. urtebetetzea, alde batetik, eta Jainkoaren Hitza gizon egiten zeneko gertaera, bestetik, ospatzen

ditugu Gabonetan. Berak ekarri zuen Berri Ona garai hartako jendearen bihotz egarriak kontsolatzeko edota salbazio bidean jartzeko. "Ni naiz bidea, egia eta bizia".

Gu ere haragi, odol eta hezur egin gara jaiotzean. Gure etorrera ospatu ohi dugu nola edo hala urtebetetze-festa bakoitzean. Zergatik ospatzen dugu? Gutako bakoitza oso inportantea delako beste norbaitentzat. Izan ere, sufriarazten zaituena ez da huskeria bat, sufriarazten baitzaitu. Nire egiten ditut nonbait irakurritako hitz horiek, betiere jakinda gutako bakoitza hautsa baino ez dela. Horretxegatik gabiltza noizbait ezinean. Zer egin dezakegu orduan? Otoitz egin: "Eutsi nazazu, Jauna,

etsi nahi dudanean".

Zailtasunak zailtasun, nahigabeak nahigabe.

Beti dago norbait beraren alde egiteko, beraren alde sufritzeko. Horretxegatik, nahigabeen ere, sinetsi egiten dugu. Maitatuz maitatuz. Izan ere, Víctor Hugoren esanetan, "maitasuna da Jainkoak ematen digun gero bakarra". Usteak erdia ustel, baina uste dut guztiz errete egon behar zela gizajoa hitz horiek idatzi zituenean. Ez al da egia? Ai ene, gizon hauekin ez dago erremediorik!

(*). *Santa Teresa Jesusena: Bizitza Liburua. Luis Baraiazarra karmeldarrak euskaratu du liburua.*

Julio Urkaregi Zendoia

Prest gaude

Abenduaren 9an Parisko kaleak bete genituen Frantziako Estatuak espetxeen auziari irtenbidea emateko urratsak eman ditzala eskatuz. Han elkartu ginen 11.000 pertsona, salbuespen neurriekin behin betiko amaitu behar dela adieraziz.

Orain, "Prest gaude" lemapean, Bilboko kaleak bete behar ditugu (urtarrilaren 13an), euskal gizartean bakearen eta konponbidearen alde gauden guztion islada izan dadin. Izan ere, guk, gure bizipen eta esperientziak medio, inork baino hobeto dakigu egoera honi amaiera eman behar zaiola, eta guztiok batera aurrera egiten badugu, lortzea badagoela.

Horregatik, euskal gizartea izan behar da gatazkaren konponbidea bideratu behar duena. Giza eskubideekiko babesa denoi dagokigu. Gizarte batek ezin du aurrera egin baldin eta guztioi dagozkigun giza eskubide horiek urratzen badira.

Etorkizunari begiratu eta aurrera egiteko eskatzen dugu, guztion artean mendeku eta gorrotorik gabeko gizarte bat eraikitzeko. Eta, zentzu honetan, euskal presoek jasaten dituzten eskubide urraketari amaiera ematea ezinbestekoa da, dispertsio politikari amaiera ematea ezinbestekoa da, hauen eskubideak ez ezik,

beraien familien eskubideak ere urratzen baitira. Beharrezkoa da salbuespeneko legediari amaiera ematea, gaixo dauden presoak kartzeletan mantentzea bideratzen duen mendeku politikari amaiera ematea.

Beraz, Debako alderdi politikoa, sindikal, eragile sozial eta norbanako guztioi, inolako salbuespenik gabe, dei egiten dizuegu urtarrilaren 13ko mobilizazioan parte hartzera.

Autobusean joan ahal izateko, eman zure izena ohiko lekuetan.

Bilbon ikusiko dugu elkar.

Debako Sare

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Maitasunaren tren

Gaueko isiltasunean *Mariren Kobazuloaren* bloga irakurtzen ari nintzen eta bertan azaltzen diren idazlanen artean, badago nire barrena ukitu duen bat. Eta honela dio: Maitasuna treneko bidaia bat da. Bidaia luzea edo motza izan daiteke, baina trenean igota gauden bitartean zoriotsu bizi gaitzke.

Inportanteena, niretzat behintzat, zein trenetan igotzen garen da. Pertsona batzuek pasatzen den lehenengoa aukeratzeko dute, egokia den ala ez ikusi gabe eta urteak egoten dira bidaia egiten, nahiz eta leihotik ikusten dutena aspergarria eta monotonia hutsa izan.

Beste batzuei, berriz, euren buruarekin hain exigenteak direnez, kosta egiten zaie aukeratzeko eta bizitza osoa pasatzen dute trenera igo gabe, etorriko den hurrengo hobia dela pentsatuz. Hauek bidaiaren paisiaz gozatu gabe pasatzen dute bizitza.

Badaude, baita ere, geltoki abandonatuak batean egon direnak eta ondoren erabaki dutenak zein trenetara igo, edo gutxienez argi eta garbi dakite zeinetara ez. Hauek trenak aukeratzeko dutenean, bidaia gozatzeko eta disfrutatzen dute erabat; maitasuna zoriontasunez bizitzen baitute.

Baina bidaiaren gauden bitartean, gel-

toki desberdinak daude eta gerta liteke egun batean geltoki abandonatu horietako batean jaitsi behar izatea, nahiz eta trenean jarraitu nahi izan. Geltokia iluna, goibel eta tristea izango da. Batzuk denbora laburrean egongo dira hemen eta beste batzuk, berriz, inoiz ez dira aterako.

Bukatzeko, nire ustez, lehen esan dudana bezala, oso argi aukeratu behar da hartu beharreko trenak, bidaia luzea egin eta leihotik izugarritzko paisaia ikusi ahal izateko.

Ez al zaizue ederra iruditzen? Gure bizitzan zein trenetan igo gara gu?

Marian Larrañaga

Zatoz Olentzerori eta Mari Domingiri harrera egitera!

Abenduaren 24an, eguerdian, urteroko hitzordua izango dugu Deban. Olentzero eta Mari Domingi datozkigu, euren astoaren konpainian. Azken eskutitzak jaso eta herritarrek agurtu ostean, kalejiran ibiliko dira plaza zaharretik

abiatuta. Indarrak berreskuratze aldera, salda eta ogitarteko postua ere egongo da gero Foruen plazan.

Hitzordua txukun-txukun irten dadin, herriko elkarte eta norbanako ugari elkarlanean dabilta antolakuntza

lanetan eta herritarren parte-hartzea eskatu dute. Gonbidatuta zaudete, beraz, guzti-guztiok Olentzerori eta Mari Domingiri harrera beroa egitera. Eguberri on!

Zuhatza Euskara Elkarte



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

*Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



Seven Clovers
Irish pub

943 191 295



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95





IDOIA GEREÑU

Ilunpetan saltsan

Egunak bapo jan-edanaz igaroko ditugu opor giroan berehalaxe. Lagunartean haien esperoan mahaiaren bueltan gaiaz ari ginela, prestaketak, bidaiak eta gehiegikeriak ahotan, bazkaldar batek iaz izandako bizipen berri eta kuriosoa kontatu zigun: ilunpetan jan eta edatearen esperientzia.

Munduko hiriburu handi eta aurreratuenetan, gizartea aspertzeko gai ez eta gauza berriak probatu gosea hedatu denetan, iluntasunean esperimatzeko jatetxeak ireki omen dituzte. Momentuaz, sentipenez eta jakiez gozatzea dute helburu, baina gozamenak kolore ezberdinez jantzi ohi dira.

Mobilien erabilera edota edozein argi txiki debekatuta dagoen arren, erraza dirudi egoerak. Zeure tokian esertzen laguntzen zaituzte eta jaki-edariak mahaira zerbitzatzeko dizkizute. Alabaina, ez duzu platera ikusten —pare-parean duzu—, ez dakizu edalontzia non duzun —plater inguruan egon ohi da normalean—, mahai tresnak topatu behar dituzu —a zer lana!—... Egoerari, kartarik ez eta aukeratu gabeko menua datorriko, hau da, jatetxeak proposatutakoa. Baten batek alergiarik edo intolerantziarik baduen galdetu ostean, bazka sorpresa ekartzen dute eta hura probatzea besterik ez zaigu geratzen.

Probokazioa zerbitzatu digute jada. Giza esperimendu bateko lagin bilakatu gaituzte. Hara! ezinegona sartzen omen zaie batzuei hasi aurretik. Ezintasunen artean beldurra, agobioa, ezezagunarekiko desconfiantza, erosotasun egoerekiko atxikimendu nabarmena eta abar gailentzen da kasu batzuetan. Ostera, jolasa, zirrarak eta algarak omen dira jende gehienaren

sentipenak. Urduritasun eta deserosotasuna umorez jantzia etortzen da maiz eta galdera ezberdinei erantzuteko parada pizten omen zaigu. Zenbatekoa da norbanakoaren espazioaren ezagutza eta kontrola begiak itxitakoan? Zenbaterainoko garrantzia du itxurak, koloreak, formak eta testurak jaten dugunetan eta zenbat jaten dugu begiekin? Dastamenari zenbaterainoko tartea ematen diogu jateko orduan? Eta alde kokinari tiraka, nola jokutzen dugu ikusten ez gaituztela badakigunetan? Ondokoekin zirrikarako aukera dugunetan?

Erreakzioak ezberdinak dira, franko. Desorientazio maila ikaragarria bide da. Urduritasunak areagotuta batek baino gehiagok utzi behar izan omen du bazkatokia. Ohikoak ei dira ikusmenaz baliatu ezin eta ahotsaren bolumenean belarriak jartzen dituztenak, ozenegi hitz egiten dugula ohartuaz. Eskuekin jaten bukatzen dutenen zenbakia handi xamarra dela diote, jakiak parean izan arren tuntun sentazioa ikaragarria delako. Zer jan duten asmatzen ez dutenen kopurua harritzeko modukoa, berriz. Isiltasunean gozatu dutenek esperientzia itzela dela diote, xehetasunek imajinaziorako tartea eskaintzen dutelako...

Ez dakit datozen egunak diren hori guztia probatzeko egokienak, baina mahai inguruko prestaketetan zabilzatenontzat esperientzia dibertigarria izan liteke, bidaiak prest dituzuenontzat gomendio bat. Eta, bide batez, gizarte inklusiboaren eraikuntzan, urritasunak urritasun, norbanakook hango eta hemengo mugak ezagutzeari ekingo genioke.

On egin!



EIDER DUÑABEITIA

Hazilan proiektuan murgilduta

Kimikan graduatua da Eider Duñabeitia, kimika organikoan espezializatua. Master ikasketak irailean bukatu ostean, doktoretza burutzeko beka bat eskatu zuen baina, ebazpena jaso bitartean, lanik gabe dago. Lan bila badabil, ordea. Beste hainbat eta hainbat gazte (eta ez hain gazte) bezalaxe, hain zuzen.

Bide horretan urrats egokiak ematen ikasteko egitasmo batean -Hazilanen- murgilduta dabil azken hilabeteotan, eskualdeko beste hainbat gazterekin batera. Proiektuaren helburua? Gazte langabe kualifikatuak lan mundura hurbiltzen laguntzea. Eiderrek berak kontatu digu bere esperientzia, baita egitasmoaren mamia ere.



“Kalitatezko lanpostu bat aurkitzea da gure helburua. Ikasitakoa praktikan jartzea izango da hurrengo pausoa”

Amari esker izan zuen Eider Duñabeitia gazteak Hazilan proiektuaren berri. “Harrigarria dirudien arren, nik baino aukera gehiago aurkitzen ditu”, aitortu du. “Nire egoera berean -lan bilaketa aktiboan- dauden Debabarrenako beste pertsona batzuekin esperientziak konpartitzea eta gure konpetentziak garatzeko prozesuari ekitea interesgarria iruditu zitzaidan, eta izena eman nuen”. Entrebista pertsonal baten ostean hautatu zuten Hazilan egitasmoan parte hartzeko.

Goi mailako heziketa zikloa edo unibertsitate ikasketak amaituta dituzten 20 eta 44 urte bitarteko langabeei lana bilatzen laguntzea bilatzen du Hazilanean. Laugarren edizioa abiarazi du aurten Debegeasak.

Zertan oinarritzen den ekimena? Bada, bi garapen prozesu egiten ari direla azaldu du Eiderrek: “Batetik, garapen pertsonala eta konpetentzien hobetzea. Adibidez, niretzako berria den linkedin sare sozialaren erabilera edo taldean (beti errazagoa egiten da taldearen babesean jokatzeko) enpresetara joatea kontaktuak egiteko. Eta bestetik, proiektu gestioa egiten dugu, metodologia berriei baliatuz. Gure inguruan sumatzen dugun behar baten inguruan aurrerapauso bat eman nahian zerotik diseinatu dugu proiektu bat, eskura ditugun baliabideak erabiliz, eta aurrera ateratzen dihardugu”.

Pozik dago Debako gaztea orain arteko esperientziarekin. “Nire beharrak asetzeko beharrezkoak diren eta nire eskura

ditudan baliabideak (nahiz eta kontziente ez izan horien presentziak) erakutsi dizkirate eta hauek esplotatzeko eta mami guztia ateratzeko erremintak zeintzuk diren eta nola erabili ditzakedan ikasidut”, nabarmendu du. Dena den, oraindik ere “garrantzitsuena” falta zaiola aitortu du segidan: “Ikasitakoa praktikan jartzea eta benetan balio izan duela konprobatzea”.

Balloon Team

Programan parte hartzen ari diren guztiek Balloon Team izeneko taldea osatu dute. Diziplina anitzeko taldea da eta partaide bakoitzak, “ahal duen neurrian eta taldearen baloreak errespetatuz”, bere ezagutza partekatzen du gainontzekoekin.

“Azken finean, kalitatezko lanpostu bat aurkitzea da denon helburu nagusia, elkarri laguntza eskainiz eta jasoz. Eta helburu hori betetzeko asmoarekin geure burua ezagutzera emateko dossier bat ere sortu dugu”, azaldu du Eiderrek. Talde bezala ez ezik, norbanako gisa ere aurkezten dute euren burua txosten berean.

24 urterekin, taldekide gazteena Eider da, baita debar bakarra ere orain -beste bigarren bat ere bazegoen proiektuaren hastapenetan, baina ibilbidea hasi eta berehala aurkitu omen zuen lana-. Beste zortzi kide daude taldean: Iñaki Larrañaga, Arkitekturaren lizentziatua; Mireia Iriondo, Publizitatean eta Harreman Publikoetan lizentziatua; Eneko Iturbe, Moda

Diseinuan graduatua; Elliot Ganchegui, Enpresen Administrazioan lizentziatua; Nerea de la Cruz, Administrazio eta Finantzetan goi mailako heziketa zikloduna; Aitziber Osoro, goi mailako teknikaria Enpresen Administrazio eta Gestioan; Iker Arrillaga, Ingurumen Zientzietan lizentziatua; eta Asier Prieto, goi mailako teknikaria Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustapenean.

“Mundu berri bat esploratzen”

Bere etorkizuna lan munduan nola ikusten ote duen galdetuta, itxaropenak eta zalantzak aipatu dizkigu Eider Duñabeitiak: “Oraindik esploratzen hasi gabe nagoen eremua da lan mundua eta harea mugikorrek zapaltzen egongo banintz bezala sentitzen naiz. Hala ere, egoera hobetuko den eta ni neu erosoago sentituko naizen esperantza daukat”.

Urrian abiatu zuten Hazilan programa eta Gabonen atarian emango diote amaiera. Aurrera begirako erronkak zehaztu eta ikasitakoa praktikan jartzea izango da, beraz, hurrengo urratsa.



2018rako aurrekontu proiektua aurkeztu ostean, batzarrak antolatu ditu Itziarko Auzo Udalak

Itziarko Auzo Udalak pasa den azaroaren 20an erregistratu zuten Debako udaletxean 2018rako aurrekontu proiektua. Eta, egun berean, prentsaurrekoa egin zuten Itziarren Zigor Aizpurua auzo alkateak eta Maider Lopetegik juntakideak.

2015. urtean Itziarko Toki Entitate Txikia sortu zenetik aurkeztu duten hirugarren aurrekontu proiektua dela gogorarazi zuten. "2018koari begira, aurrez lanketa egin ondoren, bigarren fasearen garapen osoan gaudela ulertuta, prestatu ditugu gure aurrekontuak. Bigarren faseari dagokion formula osoa aplikaturik, eta dagokigun diru ekarpena ezarrita", azaldu zuten.

Lanean daramatzaten azken hiru urteotan "hainbat gabezia" sumatu dituztela nabarmendu zuten Aizpuruak eta Lopetegik: "Harrera bulegoa badugu, baina astean bi goizetan soilik irekita; diru-laguntzen lanketarako ere laguntza behar dugu; Itziarko Auzo Udalarik dagozkion tramite administratiiboak lantzeko eta burutzeko ere arazoak ditugu...". Horrek guztiak, euren esanetan, "behar berriak sortu ditu, eta teknikari koordinatzaile baten kontratazioa ezinbestekoa zaigu".

Horiek hala, auzo alkatea pozik dago aurrekontu proiektu



honekin, "legearen arabera eta zorrotza delako, eta auzotarrak merezi ditugun zerbitzuak hobetzeko balio izango duelako".

"Eman eta hartu"

Aurrekontuen prozedura eta auzo udalaren egoera orokorra abiapuntuz hartuta, lau batzar antolatu ditu Itziarko Auzo Udalak auzoetan -abanduan burutu dira-. Proposamenak eta iritziak jasotzeko aukera izan da batzar horietan.

"Eman eta hartu" izenpean, parte-hartze ekimen bat jarri da martxan, lehen aldiz. Horrela, galdetegi bat banatuko zaie auzotarrari. Ezarritako aurrekontu eta baliabideen baitan herri-tarren lehenetsunak, iritzi eta ekarpenak jasotzea du helburu galdetegi honek. Galdetegia entregatzeko epea abenduaren 31n amaituko da eta bertatik ondorioztatutako emaitzak oinarritzat hartuko ditu Itziarko Auzo Udalak 2018ko aurrekontuen inbertsio atalean.

Galdetegi eta proposamenak jasota, emaitzak urtarilaren 25erako deitu duten batzar orokorrean azalduko dituzte. Balorazioa ginez, lehenetsunak finkatu nahi dituzte.

Indarkeria matxistaren kontrako aldarria



Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan antolatutako egitarauaren baitan, Beldur Barik lehiaketari dagokion sari banaketa ekitaldia egin zen azaroaren 24an, Agirre jauregian. Edizio honetan lan bakarra aurkeztu da Debatik eta hark jaso du saria. Markel Lizaso, Rebeca Arroyo, Maria Uriarte eta Josu Arroyok osatutako tal-



dea saritu dute (jarraian jasotzen duten hirugarren saria da).

Azaroaren 25aren harira bestelako ekimen batzuk ere egin dira: ipuin-kontaktak, antzerki emanaldia, elkarretaratzea... Berdintasun Sailak antolatutako egitarauari amaiera emateko, abenduaren 17an Bertha Gaztelumendik zuzendutako "Volar" filmaren proiektzioa eta eztabaida saioa egin ziren.

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº 379

Higiezinaren Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezinaren Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Baloizaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

ASKETA, S.L.

ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 27.051.049
NIVEL 2

Deban ere aurkeztu da Euskaraldia, hizkuntza-ohituretan eragiteko ekimena



Euskaraldia, 11 egun euskaraz izeneko ekimena jendaurrean aurkeztu zen Deban abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean.

Urtebete barru, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, Euskal Herri osoan gauzatuko da ekimena. Euskaltzaleak aktibatzea bilatzen du, hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskararen erabilera handitzea, alegia.

Euskaraz hitz egin eta ulertzeko gai diren herritarrak izango dira protagonistak, eta, 11 egunetan zehar, beraien ohiko harreman sareetan euskaraz egiteko gonbidapena jasoko dute.

16 urtetik gorako herritarrak *ahobizi* eta *belarriprest* bihurtu nahi ditu Euskaraldiak. Ulertzen duten guztiei euskaraz hitz egiten dieten lagunak dira *ahobiziak* (baita ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egiten dietenak ere). *Belarriprestak*, berriz, gutxienez euskaraz ulertzen duten kideak

dira, gainontzekoei euskaraz aritzeko gonbidapena luzatzen dietenak.

Euskal Herri osoan

Bilbon joan den azaroaren 23an aurkeztu zen lehenbizikoz Euskaraldia, Euskarak 365 egun dinamikaren baitan jaio den proiektua. Bertan izan ziren hainbat gizarte eragile eta instituzioetako ordezkariak. Euskaltzaleen Topagunea, Eusko Jaurlaritza, Tokikom, Euskal Elkargoa eta Nafarroako Gobernuak daude, besteak beste, ekimen honetan.

Agerraldi hartan azaldu zuten bezalaxe, Euskal Herri osoan zabalduko da egitasmoa, baina tokian tokiko euskaltzaleek izango dute dinamizazioa sustatzeko ardura.

Horren harira antolatu zen, hain juxtu, Deban abenduaren 3an egindako aurkezpena ere. Debako Udaleko Euskara Saileko arduradunek eta

Zuhatza Euskara Elkarteko kideek eman zituzten egitasmoaren xehetasunak, hitzordura hurbildutako hamarnaka lagunengana aurrean.

Dagoeneko, Euskal Herriko 40 herri edo hiri baino gehiago daude Euskaraldiaren antolaketan murgilduta. Eta, Deban ere erronka horri heldu nahi ote zaion erabaki beharko da datozen asteotan, 2018ko lehen hiruhilekoan izango baitute herriek ekimenean izena emateko aukera.

Batzar irekia urtarrilean

Herri mailako helburuak, elkarlan moduak, baliabideak... zeintzuk diren ikusi eta lehenbiziko erabakiak hartze aldera, urtarrilean egingo da gai honen inguruko bilera baterako deialdi zabala. Herritar guztiei luzatuko zaie bertan parte hartzeko aukera, norbanako, elkarte, komunitate, enpresa zein talde gisa.



Ekimen ezberdinak Euskararen Eguna ospatzeko

**EUSKARAK
365
EGUN**

Euskaraldia, 11 egun euskaraz egitasmoaren aurkezpena ez ezik, bestelako ekimen eta hitzordurik ere izan da aurten Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan. Mahai-ingurua, antzerkia, euskararen erabileraren kale neurketa, kantaldiak edota zine emanaldiak izan dira aukeran lau eguneko egitarauan. Udala, Gaztelekua, Gazte Asanblada, Kanean Kantuz eta Zuhatza Euskara Elkartearen ekimenez burutu dira ekintzak.

Egindakoari errepaso txiki bat emate aldera, ondoko lerro eta irudi hauek jaso ditugu orrialde hauetan, aipamen txiki bat merezi duelakoan.

Azaroaren 30ean (osteguna) Kultur Elkartearen eman zitzaion hasiera egitarauari, **“Berto txapelketako entzuleak prestatzen”** izenburupean antolatutako mahai-inguru edo solasaldiarekin –kro-

nikatxoa duzue alboko orrian irakurgai-. Eta, egun bat beranduago, Iñaki Ziarrusta aktoreak **“Bihotz salataria”** (Edgar Allan Poeren itzulpena) antzez-lana eskaini zuen Gaztetxean.

Larunbat arratsaldean eta igande eguerdian, bestetik, temperatura hartu nahi izan zitzaion Deban euskarari. Horretarako **kale neurketak** egin ziren herriko hainbat lekutan, hala nola taberna eta denda inguruetan, futbol zelai eta frontoietan. Kaleko elkarriketen erdiak euskaraz biltzea izan da erronka. Lortuko ote genuen? Bada, ezin argitu oraindik ere. Neurketen emaitzak jasota dauden arren, horien inguruko informazioa ez dugu eskura gaur-gaurkoz.

Abenduaren 3an (igandea) egin ziren azken ekimenak. Eguraldi hotzari aurre eginez, **Kanean Kantuz** taldekoak kantuan aritu ziren eguerdi partean

–taldeak berak kontatu nahi izan dio *Berriketan*-i egindakoa-.

Zuhatza elkarteko **Kolore Anitz** Aisialdi Taldeak hurrekin jolasean ospatu nahi izan zuen Euskararen Eguna. Lehen Hezkuntzako haur guztiei zuzendutako jolasa egin zuen eguerdian eta kalejira alai bat egin zuten amaieran –irudia duzue ikusgai-.

Arratsaldean, berriz, bi film proiektatu ziren Kultur Elkartearen: **“Hurak eta lapurrak”** animaziozko lana hurrentzat eta **“Pikadero”**.

Eta, igande arratsaldean, Gaztelekuan, **Euskaraokea** egin zuten 12-17 urte bitarteko gazteek. Lau talde eta bakarlari bat lehian: Bost eta Kitto, Inge eta Ingenieruak, Atepeko leihotik, Borrokiyas eta Itsaso. “Giro aparta, jende andana eta era guztietako saioak ikusteko parada izan genuen”, azaldu dute Gaztelekuko kideek.



Euskaraokea, Gaztelekuan.



“Bihotz salataria” antzerki emanaldia, Gaztetxean.



Ander Salegi

Haurrentzako jolasak, Kolore Anitzen eskutik.

Kalean Kantuz taldearen "omenaldi xumea" euskarari

1552ko abenduaren 3an Xabierko Frantzisko hil zen eta, kondairak dioenez, hil aurreko azkenengo hitzak bere ama hizkuntzan esan zituen, hau da, euskaraz.

1949an Eusko Ikaskuntzak egun hau ezarri zuen euskararen nazioarteko eguna ospatzeko eta, azkenik, 1995ean Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak egun hau instituzionalizatu zuten. Abenduaren 3an makina bat ekintza antolatzen dira Euskal Herri osoan: kalejirak, herri bazkariak, mahai-inguruak, bertso jaialdiak, kantaldiak eta abar. Hori horrela, guk, Kalean Kantuz osatzen dugun taldekideok, urtero egin ohi dugun bezala, aurten ere gure omenaldi xumea egin nahi izan diogu euskarari, kalez kale gure abestiak eskainiz herritar guztxi.

Kalean Kantuz



Zuhatzan bertsoaren bueltan

Kanpoan umel zegoen bitartean, Kultur Elkartearen giro epelean elkartu ziren 20 bat bertsozale azaroaren 30ean. Mahaiaren inguruan Joxe Angel Salegi *Lizarreta* bertsolaria, Karmele Zulaika entzule tematuria eta Mikel Aizpurua, epaile lanetan aritua eta bertsoan aditua. Motz geratu zen ordu eta erdiko saioan, bertso txapelketa nagusian egin beharreko ariketak aitzakiatzat hartuta, bertsoaren inguruko hainbat detalleri begirada eta belarria jartzeko aukera izan genuen. Hona hemen zenbait apunte:

Agurra. Etxetik pentsatuta eraman ohi den hasierako bertso horrek bi joera nagusi izan ditu bertsolariaren historian: aspaldian bertsolariaren urduritasun eta kexa adierazteko erabilia sarritan, edo gaur egun egiten den eran, nahi duten mezua helarazteko.

Aizpuruak maisuki aukeratutako hiru agurrek islatu zuten emakumea bertsolariaren gai izatetik bertsoak kantatzeko gai izatera pasa dela eta bertso eskolatan ere neskak ugari direla. Ez hainbeste, ordea, bertso saio edo txapelketetan.

Bertsoa abesteko doinua zeren arabera aukeratzen den galdetuta, *Lizarretak* zera dio: umorerako azkarra, bizia, eta gehiago esan ahal izateko doinu motelagoak hobekak. Karmele Zulaikari doinu berriak hasieran zailak egiten bazaizkio ere, behin ohitutakoan gustatzen zaizkio. Eta Mikel Aizpuruak azaldu du horregatik ateratzen dituztela doinu berriak agurrean,



entzuleak ohitzen joan daitezten. Epa-irizpidearen arabera, doinuak mezuari lagundu egin behar dio.

8ko nagusia. Gaiari heltzeko bi aukera izaten dira: egoera beretik edo elkarren kontra. Bertsolariarentzat, *Lizarretaren* hitzetan, elkarren alde egitea da zailena; elkarren kontra egitea, berriz, errazena. Entzulearentzat ere gustagarriagoa da kontra ari direnean, pikeek, gatazkek giroa berotzen dute eta.

Lizarretak nola prestatzen ote zuen bere burua bertsoan aritzeko? Informazioa prentsan, irratian,... jaso eta albisteen inguruan postura desberdinak kalkulatu, ideologia entrenatu, errimak landuz nahiz jendearen esaldi eta arazoak gordez. Etxeko lanak eginez, alegia. Epa-irizpideetan etxeko lanetatik ere ulertzen da aurrez sortutakoa egoki kudeatzea.

8ko txikia. Ariketa batzuk aztertu ostean, ikusi dugu gorputz adierazpenak ere balioa handitzen diola bertsoari, betiere keinuak testuaren hutsunerik betetzen ez badu. Horren adibide garbia da Nerea

Ibarzabalek Nahikari Gabilondori Zumaiako saioan "ikusten ez dena ez da existitzen" esatean eskuekin begiak ezkututzen dituenean.

Puntua emanda. Zulaikaren ustez entzuteko ariketa polita den arren, bertsoarako ariketa zaila dela dio *Lizarretak*, asko sufritzen dela. Gaia puntu hasieran edo bukaeran ipintzeak ere berez erraza ez den ariketa gehiago zailtzen du.

10eko txikia. Bertsolariak hiru aukera ditu:

- 1.- Ideia berri bat bota
- 2.- Bertsolagunaren bukaerari norbere bertsoaren bukaerarekin erantzun, edo...
- 3.- Bertsolagunaren bukaerari norbere bertsoaren hasieran erantzun eta bukaerari ideia berri bat bota.

Kartzela. Bertsolariarentzat "txarra" dela dio *Lizarretak*, abesteko txanda noiz iritsiko zain egon behar hori, kontzentrazioa mantendu beharra, sufrimendua...

Ezin ahaztu daiteke bertsoak eta bertsozaleek bilakaera handia izan dutela; 2017ko entzuleak ez dira garai bateko bertsozaleak. Hori dela eta, erreferentziak eguneratu behar izan dituzte bertsolariak eta, bertsoa arte hutsa ez denez, ideologiak ere markatzen duenez, momentu eta leku konkretu batean entzun edo botatutako bertsoa bertsozale bakoitzaren arabera izango da ona (edo ez).

Hitzordua ezin zitekeen beste era batera bukatu eta *Lizarretaren* agur bertsoarekin amaitu zen.

Itziar Arana

Miren Artetxe eta Sonia Tomás garaile nesken pala txapelketan



Aurtengo nesken pala txapelketako finala abenduaren 16an jokatu zen, eguerdian, eta Miren Artetxe eta Sonia Tomás nagusitu ziren (22-17), Iratxe Astigarragak eta Monika Salegik osatutako bikotea bigarren postuan utzita. Partida parekatua izan zen eta ikusle ugari izan ziren lehia jarraitzen Aldats pilotalekuan.

Finalaren aurretik, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partida ere jokatu zen. Itziar Larrinaga eta Irati Ciaran debarrak irabazi zuten, Vanessa Ortueta eta Yoli Mateos elgoibartarrek osatutako bikoteari puntu bakarreko aldea aterata (22-21).

Irailen abiatu zen Debako nesken seigarren pala txapelketa, taldeko kide zen Maite Etxeberriari omenaldia egiten dion hirugarrena. 25 bikote aritu dira lehian.

Amagoia Arrieta, Gipuzkoarren Kirola Saria jasotzeko izendatua

Hainbat hautagai proposatu dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiak banatzen dituen *Gipuzkoa Kirolak Saria* eta *Gipuzkoarren Kirola Saria* jasotzeko, eta horien artean egon da Amagoia Arrieta debarra, nahiz eta azkenean ez duen saria etxera eraman.

Gipuzkoa Kirola Sariaren kasuan, epaimahai tekniko batek erabakitzen du zein kirolariri edo kirol talderi eman eta aurten Ander Vilariño gidariak irabazi du. *Gipuzkoarren Kirola Saria*, aldiz, sariketa herrikoia da (irabazlea bozka bidez hautatzen dute herritarrek) eta saria Kauldi Odrio-zolarentzat izan da. Azken errekonozimendu hori lortzeko proposatu zuten, hain juxtu, Amagoia Arrieta. Boccia (kirol egokitua) praktikatzen du Amagoiak, Dordoka-Kemen kirol elkartearen. Besteak beste, urrezko domina lortu zuen uztailean Boccia Espainiako Klubaren arteko lehian eta hirugarren postuan gelditu zen mundu mailako txapelketan (taldeka).

Irene Sarrionandiaren "Aurrera" film laburra, Bilbao Mendi Film Festival Jaialdian

Irene Sarrionandia protagonista duen "Aurrera" filma Bilbao Mendi Film Festival Jaialdian estreinatu da. Azken urteetako arrakastari esker, mendiko zinemagintzan nazioarteko erreferentzia nagusietakoa bihurtu da Mendi Film eta hamargarren edizioa izan du aurtengoa -abenduaren 8tik 17ra bitarte ospatu da-. Estilo eta jatorri ezberdineko 51 filmek osatu dute edizio honetako Sail Ofiziala. Lau euskal ekoizpen daude tartean eta horietako bat da "Aurrera". Jaialdian proiektatu duten arren, azkenean ez du lortu sarituen artean egotea.

Zazpi minutuko iraupena du lanak eta Mikel Peñak -Ireneren ilobak-zuzendu du. Filmaren sinopsiak berak laburbiltzen du protagonistaren ibilbidea eta ikus-entzunezkoaren mamia:



"Irenek 69 urte ditu eta 40 baino gehiago daramatza lasterka egiten. Mendiko lasterketak oraindik ezezagunak zirenean hasi zen bera mendian barrena korrika eta hamaika probatan hartu du parte. Irenek, adinean aurrera joan arren, indarririk duen artean ez dio mendian korrika egiteari utziko".

Pasaia Hiria olerki lehiaketako bi sariak Debara

Goizane Aizpurua Ibañez, *Afasia Air Lines* poema-bildumarekin, eta Rafael Bravo Arrizabalaga, *Tempestad de Luz* idazlanarekin, Pasaiaiko poesia sariaren irabazleak dira, euskaraz eta gaztelaniaz. Debara datoz, hortaz, Pasaiaiko Udalak 1980. urteaz geroztik antolatzen duen Pasaia Hiria olerki lehiaketako azken edizioko bi sariak.

Bi egileen lanekin liburu bana argitaratuko du epe laburrean Pasaiaiko

Udalak, Bermingham Editek argitaletxearen bitartez.

Sariatako epaimahaikideak honako hauek izan dira aurten: Irati Goikoetxea eta Nerea Beldarrain idazleak, euskaraz; eta Elena Roman, Jesus Maria Corman eta Felix Marañña, gaztelaniaz.

Pasaiaiko Udalak jakinarazi duenez, ekitaldi berri honetan bigarren saria hutsik gelditu da bi ataletan.

Debako eta Itziarko musikarien uzta Durangon

"Ertzetatik" diskoarekin iaz estreinatu zen Huntza taldea Durangoko Azokan. Plazaz plaza aritu da harrezkerro taldea -Josune Arakistain lasturtarra tartean dela- eta, besteak beste, Japonian ere bira bat egin berri dute. Azokaren azken edizioan beste lan bat ere aurkeztu dute, dena den. Bi abestiz osatutako "Lumak" diskoa izan dute salgai eta lortutako etekinak Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkarteari (Aspanogi) bideratuko dizkietela azaldu dute musikariek. Zaleentzako diskoak sinatzen ere aritu dira azokan.

Huntza taldea ez ezik, herriko beste sortzaile batzuk ere presente egon dira Durangon. Horren adibide dugu, esaterako, Debako musika eskolako trikitixa taldearen "Inor ez da perfektua" diskoa.

Bestetik, azokaren azken egunean, Ahotsenean zuzeneko emanaldia egin zuten Jokin Lasak eta Mikel Saumellek, "Hatseginez" aurkezten. Lau abestiz osatutako diskoa da eta liburuxka baten banean dakartza abestien letrak eta Saumellen irudiak. Lasarekin eta Saumellekin batera, Iñigo Aizpurua eta Ibon Urkia musikariak aritu ziren oholta gainean.

Hamar urte beteko ditu aurten Animadeba jaialdiak



2008an burutu zen Animadeba jaialdiaren lehenbiziko edizioa eta, harrezkerro, hutsik egin gabe antolatu da urterotertero, abenduan betiere. Iazko datak mantenduta, hilaren 26tik 29ra bitartean ospatuko da aurtengo jaialdia, baina aurrez emango zaio hasiera egitarauari.


Izan ere, nobedade bat baino gehiago dago X. edizio honetan, hala nola Agirre jauregian ikusgai jarriko den **erakusketa: "Muittu". Euskal Herriko marrazki bizidunak. 1980-2004**. Abenduaren 18tik abenduaren 29ra bitarte egongo da zabalik erakusketa, honako helburuarekin: "Marrazki bizidunen artea eta aberastasuna jendarteratzea. Bereziki, honek duen gaitasun pedagogikoa, adimen suspertze eta irudimen lanketarako aukera".

Euskal Herrian 80ko hamarkadan hasita, 2004ra arte egin diren ekoizpenik garrantzitsuenen ibilbidea aurkezten du erakusketak: luzemetraiak, laburrak, publizitatea eta saiakera txikiak.

Aurtengo emanaldiak abenduaren 26an (asteartea) hasiko dira, Kultur Elkartearen. 17:00etan "**Nur eta herensugearen tenplua**" -Juanba Berasategik aurten sortutako euskal ekoizpena-proiektatuko dute. Eta, 19:00etan, "**En el techo del mundo**" (2015, Frantzia) ikusteko aukera egongo da.

Abenduaren 27an, beste bi luzemetrai proiektatuko dituzte. 17:00etan "**LABAN, mamu txikia. A zer beldurra!**" (2016, Suedia), eta 19:00etan "**La tortue Rouge**" (2016, Frantzia).

Kultur Elkartetik kanpora irtengo da



Animadeba abenduaren 28an (osteguna). Izan ere, **gortina lehiaketaren** emanaldia Maxi tabernan izango da, 19:00etan. Eta, gaueko 22:00etan, Gaztetxean eskainiko dute "**Psiconautas, los niños olvidados**" (2015, Espainia) luzemetraia.

Jaialdiaren azken egunean, hilaren 29an, hiru ekimen ezberdin izango dira aukeran. Goizean, 11:00etatik aurrera, **gortina tailerra** izango da Kultur Elkarteko liburutegian. Kote Camacho

zine zuzendariak Animadeba 2017ko gortina nola egin zuen azalduko du, bai eta bideoaren prozesu osoa teknikoki erakutsi ere. Izena eman behar da taillerrean parte hartzeko, Turismo Bulegoan.

Arratsaldeko 19:00etatik aurrera animaziozko film laburrak izango dira protagonista, Kultur Elkartearen. Hamar lan eskainiko dira guztira: "**Areka**" (2017, Euskal Herria), "**Hamabietan duelua**" (2016, Euskal Herria), "**The Neverending wall**" (2017, Valentzia), "**Nunca pasa nada**" (2016, Euskal Herria), "**After Work**" (2016, Peru), "**Decorado**" (2017, Galizia), "**Kutxa beltza**" (2016, Euskal Herria), "**Knockstrike**" (2016, Katalunya), "**Amarillo**" (2016, Madril) eta Aitor Oñederrak aurten sortutako "**All I need is you**".

Gauean, berriz, **hamargarren urteurrena ospatzeko festa** egingo da Zokoan. Bertan, aurtengo gortina lehiaketari dagokion sari banaketa izango da, 22:00etan. Ondoren, kontzertua antolatu dute: Unclose eta ToRMeNT (DJ). Gonbidapenak Turismo Bulegoan jaso beharko dira.

Animadeba 2017 iragartzeko kartela Nere Oria Iriondok egin du. Jaialdiaren inguruko informazio gehiagorako: www.animadeba.com.

"Ez naiz Sanroke jaien programa" aldizkaria

"Ez naiz Sanroke jaien programa" izenburupean ikusi du argia Jose Luis Albizuk, Nagore eta Lukax Dorronsorok (*Zapi eta gerriko gorria Egiten*) idatzitako aldizkariak. "San Roke ezpata dantza ala ezpara dantza?" izenburuko idatziak ematen dio hasiera argitalpenari, eta bestelako sei arti-

kulu biltzen ditu aldizkariak. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako testuak irudi ezberdinekin ilustratu dituzte egileek.

Aldizkaria salgai dago dagoeneko sei euroan. Gurutze kalean eta Lersundin, Goiararen parean, eros daitezke aleak -Lorenzok eta Nelsonek saltzen dituzte-.

Ez naiz Sanroke jaien programa



Jose Luis Albizuk, Lukax eta Nagore Dorronsorok
Zapi eta gerriko gorria Egiten

Berriketan Gaztea

2017ko abendua
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua

Bullying-ari buruzko hitzaldia institutuan

Azaroaren 10ean, bullying-ari buruzko hitzaldi bat izan zuten bigarren mailako ikasleek, Orientazio mintegiak antolatua. Goizeko bigarren, hirugarren eta laugarren orduetan izan zen hitzaldia, ikastetxeko liburutegian, eta Ertzantzako bi kidek gidatu zuten saioa.

Bertan bullying-ari buruzko hainbat gai landu zituzten. Lehenik eta behin, bullying-a zer den azaldu zuten: ikasle edo nerabe batek beste batzuen partetik behin eta berriro jasaten dituen tratu txarrak daude oinarrian. Tratu txar horiek fisikoak edota psikologikoak izan daitezke eta ekintza horiek pertsona horren baztertze soziala ekar dezakete. Kontzeptu honen baitan jarrera ezberdinak sar daitezke: iseka egitea, mehatxuak, eraso fisikoak, isolamendua... Jarrera hauek errepikatu egiten dira denboran zehar.

Erasoak eskolan hasten diren arren, erasotzaileek kalean ere burutu ditzaketela azaldu zuten ertzainek.



Jazarpen mota honetan hiru pertsonaia nagusi agertzen dira:

- **Biktima:** tratu txarrak pairatzen dituen. Gehienetan, babes gabeko nerabeak izaten dira. Beldurra gartzten du, bere buruan eta besteengan duen konfiantza galtzen du eta apurka-apurka bere eskola errendimendua txikitzen joaten da.

- **Erasotzailea:** indarkeria erabiltzen duena.

- **Lekukoa:** dena ikusten du kanpetik, hau da, tratu horien testigu da. Egoera onartzen du, sentsibilitate falta du eta, gainera, adiskidetasuna galtzen

du. Ez du ezer egiten biktimaren alde.

Pertsonaia bakoitzak egoera horietan nola jokatzeko duen eta euren jokaeren ondorioak zeintzuk diren azaldu zuten hizlariak. Adibide batzuk ere eman zizkieten ikasleei, hala nola Jokin izeneko mutil batek jaso zituen tratu txarrak. Gazte horrek, bullying-aren ondorioz, bere buruz beste egin zuen.

Ertzainak legediari buruz ere aritu ziren. Garbi utzi zuten bullying egoeretan adinaren arabera erantzukizun ezberdinak daudela: 14 urtera arte, gurasoek hartzen dute ardura, kalte-ordainak emanez. 14 urtetik 18 urtera arte, erantzukizunak norberak jasaten ditu; betiere, gurasoak tartean egonik. Eta 18 urtetik gora, erantzukizunak norberarenak dira guztiz.

Azkenik, ertzainek cyberbullying-a ere izan zuten hizpide. Gaur egun, teknologia berriak direla eta, gero eta cyberbullying kasu gehiago daudela eta betiko bullying-a baino ohikoagoak direla aipatu zuten.

Mendata BHIko irakasleen grebak

ELA, LAB eta Steilas sindikatuek azaroaren 30ean greba egitera deitu zituzten unibertsitate kanpoko Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza publikoko irakasleak. Mendata ikastetxeko irakasleek, sindikatuen proposamena aztertu ondoren, bozketa egin zuten eta grebarekin bat egitea erabaki zuten.

Gainera, irakasle batzuek sindikatuek hiriburuetan egin zituzten manifestazioetan parte hartu zuten.

Aldarrikapenen artean, honako



eskaerak egin zituzten: Hezkuntzan egindako inbertsioak Europako batez bestekora igotzea, 1.800 ira-

kasle gehiago kontratatzea, behin-behinekotasun tasa %38tik %6ra jaitea, ordezkapenak lehen egunetik egitea, irakasleen ratioak %10 murriztea...

Mendata ikastetxeko irakasleek, sindikatuek bezala, irakasleen eta hezkuntza publiko osoaren egoeraren larritasunari eta aldarrikapenei erantzuneko dien negoziazio bat egiteko eskatu zioten Hezkuntza Sailari.

Abenduaren 12ko greba deialdiarekin ere bat egin zuten Deban.

Andrea Aldalur

“Ez naiz damutzen gimnasia erritmikoa aukeratu izanaz”



Andrea Aldalur elkarrizketatu nahi izan dugu ale honetan. Lehenengo mailako ikaslea da Andrea eta gimnasia erritmikoa egiten du. Kirol hori zergatik aukeratu duen eta nola doakion kontatu digu elkarrizketa honetan.

Noiz hasi zinen gimnasia erritmikoan?

Duela hiru urte hasi nintzen gimnasia erritmikoarekin eta, egia esan, ez naiz erabaki horretaz damutzen.

Zergatik aukeratu duzu kirol hori?

Telebistaren bitartez ikustea gustatzen zitzaidalako aukeratu nuen eta probatu egin nahi nuelako.

Nora joaten zara entrenatzera?

Eibarko kiroldegira joaten naiz.

Kirol hori praktikatzan duen norbait ezagutzen zenuen?

Ez, jende gutxik egiten duelako kirol hau. Orain, ordea, jende asko ezagutzen dut.

Taldekideekin ondo moldatzen al zara?

Badakizu, hasieran, beste leku guztietan gertatzen den bezala, oso jende gutxi

ezagutzen duzu eta denak ezagutu arte moldatu beharra izaten duzu. Baina, denborarekin, orain bai, harreman ona izatea lortu dut.

Nola joaten zara entrenamenduetara? Norekin?

Kotxez egiten dut joan-etorria. Nire lagunaren amarekin joaten naiz.

Lehiaketetan parte hartzen al duzu? Hala bada, zenbat aldiz lehiatu zara?

Bai, parte hartu izan dut. Urtean bizpahiru aldiz izaten dugu aukera praktikatutakoa erakusteko.

Astean zenbat entrenamendu izaten dituzu?

Astean hiru aldiz joaten naiz.

Garaipenik lortu al duzu?

Ez, inoiz ez.

Inkesta

Zer hobetu daiteke ikastetxean?

Hilabete honetan 2. mailako ikasleekin elkartu gara, eskolari buruzko zenbait galdera egiteko. Hona hemen gure galderak eta haien emandako erantzunak:

- 1.- Jolas-orduetan kanpora irteteko eskubidea dugula uste al duzu?
- 2.- Gustatuko litzazuke janari makinak egotea?
- 3.- Ordu-tegiak aldatu nahiko zenituzke?
- 4.- Nahiko zenuke mugikorren erabilera ez debekatzea?
- 5.- Zer arau aldatuko zenituzke?
- 6.- Liburuekin ikasi ordez, ordenagailuarekin ikasi nahiko zenuke?
- 7.- Eta eskolara etorri beharrean, etxetik ikasi?
- 8.- Etxeko lan gehiegi bidaltzen dizkigutela iruditzen al zaizu?
- 9.- Azterketen bidez pertsona batek dakiena erakusten duela uste al duzu?
- 10.- Ebaluatzeko beste moduren bat dagoela uste al duzu?

Beñat Irlondo



- 1.- Bai.
- 2.- Bai.
- 3.- Jolas-ordu luzeagoak hobeto.
- 4.- Bai.
- 5.- Arauak gustatzen zaizkit.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.
- 8.- Bai, batzuetan gehiegi.
- 9.- Gehienetan bai.
- 10.- Azterketak gutxiago balio izatea jarrerak baino.

Manex Prieto



- 1.- Bai.
- 2.- Bai.
- 3.- Lehenago sartu eta lehenago irten.
- 4.- Bai.
- 5.- Eranskinak kenduko nituzke.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.
- 8.- Bai, matematikan gehienbat.
- 9.- Batzuetan.
- 10.- Ez.


Berja Altres




- 1.- Bai.
- 2.- Bai.
- 3.- Ez zaizkit gehiegi gustatzen, baina konformatzen naiz.
- 4.- Bai.
- 5.- Asko daude aldatzeko.
- 6.- Nahiago dut paperean.
- 7.- Ez.
- 8.- Bai, mate eta ingeles arloetan gehienbat.
- 9.- Nik uste dut ezetz.
- 10.- Ez zait bururatzen.

Denbora-Pasak

Hieroglifikoak



Non daude zapatilak?



Noiz etorriko da zure anaia?

laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala

Gerka Arrizabalaga



- 1.- Bai.
- 2.- Bai.
- 3.- Bai, ordu gutxiago egitea.
- 4.- Bai.
- 5.- Eranskinak kenduko nituzke.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.
- 8.- Batzuetan asko bidaltzen dizkigute.
- 9.- Irakasgaiaren arabera.
- 10.- Ez dut aurkitzen beste modurik.

Maren Lobete




- 1.- Bai, atsedean hartzeko behar dugun denbora hartuko genuke hor.
- 2.- Gustatuko litzaidake.
- 3.- Bai, eskolan denbora gutxiago eginez.
- 4.- Ez litzateke debekatuta egon beharko.
- 5.- Bai, aldatu beharreko asko daude.
- 6.- Ez.
- 7.- Ez.
- 8.- Bai, ingelesean.
- 9.- Ez dakit.
- 10.- Bai, ebaluatzeko modua ez dut gustuko.

Markel Villa



- 1.- Bai.
- 2.- Bai.
- 3.- Bai.
- 4.- Bai.
- 5.- Lehenago irtetea.
- 6.- Ez.
- 7.- Bai.
- 8.- Bai.
- 9.- Batzuetan bai, beste batzuetan ez.
- 10.- Ez zait bururatzen.

Oihane Izquierdo



- 1.- Bai.
- 2.- Bai.
- 3.- Eskolan denbora gutxiago egin beharko genukeela iruditzen zait.
- 4.- Bai.
- 5.- Bai.
- 6.- Ez.
- 7.- Ez.
- 8.- Bai, ingelesean adibidez.
- 9.- Ez.
- 10.- Bai.

Danel Formariz



- 1.- Bai.
- 2.- Bai.
- 3.- Bai, goizean beranduago sartzea.
- 4.- Gustatuko litzaidake.
- 5.- Ez.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.
- 8.- Bai, ingelesean, matematikan... batzuetan larregi bidaltzen dizkigute.
- 9.- Batzuetan.
- 10.- Jarrerak gutxiago kontatzea.


Aimar Carst



- 1.- Bai.
- 2.- Ondo egongo litzateke, egia esan.
- 3.- Bai.
- 4.- Noski.
- 5.- Bai, denak aldatuko nituzke.
- 6.- Bai, gusturago ikasiko nuke ordenagai-luarekin.
- 7.- Ez.
- 8.- Bai, ingelesean asko bidaltzen dizkigu.
- 9.- Ez.
- 10.- Bai, badaude beste modu batzuk.

Aurkitu bidea

Txistreak



Seme batek esan dio aitari:

-Aita, aita! Handitan zu bezalakoa izan nahi dut!

Eta aitak erantzun dio:

-Ni bezain azkarra izateko?

-Ez! Ni bezalako seme bat izateko!

Eroetxean, zoro batek zera esan dio erizainari:

-Erloju hori zuzen al dabil?

-Bai, oso zuzen!- erantzun dio erizainak.

-Orduan zertarako ekarri dute hona?



Prentsa talerra 2017-2018

Goretti Unanue, Lorena Ladera, Elene Molina, Paula Del Olmo, Kimetz Etxabe, Enaitz Goikoetxea, Unax Arrizabalaga, Itziar Egaña, Maria Mendoza, Naroa Etxeberria, Alaitz Albizu eta Unax Urteaga.

Koordinatzailea: Tomas Ramos

AGENDA

ABENDUAK 24, IGANDEA

-12:30. **Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria**, plaza zaharrean. Ondoren, salda eta ogitar-teko postua egongo da Foruen plazan.

-16:30. **Presoen aldeko Olentzeroa** (plaza zaharretik). 19:30ean, "Kalera, Kalera!" plazan.

ABENDUAK 26-29

-**Debako X. Animazio Zinemaldia**. Animadeba 2017. Informazio gehiagorako jo 13. orrialdera.

ABENDUAK 28, OSTEGUNA

-15:30. **Umeen gabonetako parkea** (PINa), Itziarko frontoian.

-19:00. "**Ezberdin bezain eder**" ipuin musika-tua, Burugorri gainean. Antolatzailea: Auzo Udala, Lizarbe Guraso Elkartearen laguntzaz.

ABENDUAK 29, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, plazan.

ABENDUAK 30, LARUNBATA

-13:00. Presoen aldeko **giza kate** ibiltaria, plazatik.

ABENDUAK 31, IGANDEA

-11:00-13:00. **IX. San Silbestrea**, lasterketa herri-koia. Plaza berrian.

-13:00. **Debako Musika Bandaren** Gabon Zahar kontzertua, elizan.

-19:30. **Topa**, plazan, "Galarraga kalera!" lelopean.

URTARRILAK 1-8

-**Urteberriko Idi Probak**, Euskal Jolasen.

URTARRILAK 3-4

-**Umeen gabonetako parkea** (PINa), Aldats pilotalekuan.

URTARRILAK 4-5

-16:00-20:00. **Klown Tailerra**, Virginia Imazen eskutik. Burugorrieko ganbaran. Auzo Udalaren ekimenez. Izen-ematea, abenduaren 31ra arte.

URTARRILAK 5, OSTIRALA

-19:00. **Errege kabalgata**, kaleetan zehar.

URTARRILAK 6, LARUNBATA

-**Zoro Feria**. Egun osoko egitarau berezia antolatuko da (fruta eta barazki azoka, ganadu feria, dantzak, kalejirak...).

-13:00. **Argazki herrikoia**, Aldats pilotalekuan, urtarrilaren 13an Bilbon presoen eskubideen alde egingo den mobilizazioari babesa emateko.

URTARRILAK 13, LARUNBATA

-20:00. **Organo kontzertua**: Ignacio Arakistain eta Xabier Urtasun. Santa Maria elizan.

URTARRILAK 14, IGANDEA

-08:30. **Ibilaldia**: "Agiro mendiko altxorrak". Irteera, Otzarreta gainetik.

URTARRILAK 19-21

-**San Sebastian deunaren jaiak** Elorriagan.

URTARRILAK 21, IGANDEA

-8:30. **Mendi irteera**, Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta: Irimo.

Erakusketak

-**Haitz-Haundi elkartearen margo erakusketak**, abenduaren 22tik urtarrilaren 4ra arte, udal-letxeko pleno aretoan. Ordutegia:

Lanegunak: 18:00-20:00.

Jaiegunak: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

-**"Muittu: Euskal Herriko marrazki bizidunak. 1980-2004"**, abenduaren 18tik 29ra Agirre jaiegiko ispiu-elan. Ordutegia:

Lanegunak: 18:30-20:30.

Larunbata: 12:00-14:00 eta 18:30-20:30.

Igandea: 12:00-14:00.

Kooperazio taldearen denda

Urtarrilaren 6ra arte, kooperazio eta bidezko merkataritza denda solidarioa zabalik dago (Ostolaza kalean). Ordutegia:

Lanegunak: 17:00-20:00.

Larunbat, igande eta jai egunetan: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.

Gabonetako ordutegia liburutegian

Ostolaza Udal Liburutegiak ordutegi berezia izango du gabonetan. Abenduaren 26tik urtarrilaren 5era, honako ordutegia izango du: liburutegi orokorra 9:00etatik 14:00etara eta haur liburutegia, berriaz, 10:00etatik 13:00ak arte.

Ikastaroak KZgunean

KZgunea goizez arituko da abenduan, eta arratsaldean urtarrilean. Hainbat ikastaro eskainiko dira: Libre Office Writer, bat-bateko mezularitza smartphonean, instagram... Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo www.kzgunea.eus ataria.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **urtarrilak 5, 6, 7, 15, 16, 17, 18.**

Burgoa Zuazo: **abenduak 22, 23, 24.**
urtarrilak 1, 2, 3, 4.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Torbio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: urtarrilak 6 eta 13

BURGOA ZUAZO: abenduak 23 eta 30.

9:30 - 13:00



Uzuri
optika audio

www.uzurioptika.com

RPS: 183/12

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA

Tel: 943192192



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



MARIJE CASTRO IRIBARREN

- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio txinatarra

MASAJISTA

25 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhazta

943 191 383
berriketan@zuhazta.com



sasoiiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: telarterapia (INDIVA)-drenaje linfático -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implantak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



50 URTE

BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntzak
- Gauefan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



kutxabank
hemen
eta orain **k**

Hazirik

ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
tef.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com



Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea
estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22, 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazaatik





BADATUZ OLENTZERO ETA MARI DOMINGI EGUBERRI ON!

Abenduak 24, igandea,
12:30ean ongiatorria plaza zaharrean.

Ondoren, salda eta ogitarteko
postua Foruen Plazan.

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

*Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz ere, argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna.*

*Eguberri zoriontsua
eta urte berri on!*



DEBABE UDAL EUSKALTEGIA
Ifar Kalea, 12 – Tel.: 943 192 236
DEBA